

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMACULADA IKASTETXEA

Karmen Irazusta

Baserritar bat merkatuan

ANDRE hernaniar nagusi bat aurkeztuko dizuegu, Karmen Irazusta. Bere bizitza osoa baserriko produktuak saltzen aritu dena, San Martin merkatuan. Jarraian irakurri ahal izango duzue egin diogun elkarrizketa interesgarria.

-Kaixo Karmen:
-Kaixo.

-Entrebistarekin hasiko gara.
-Ondo da, bota galderak.

-Hasteko; zenbat urte dituzu, jakin badaiteke?
-Ba... egia esanda otsailean 81 urte beteko ditut.

-Zenbat urte daramatzazu merkatuan barazkiak saltzen?
-67 urte dagoeneko.

-Txikia zinenean handia izatean barazkiak salduko zenituzkeela pentsatuta zeneukan edo karrera bat egiteko ilusioa zenuen?

-Ez, monja joatea pentsatzen nuen baina ikusten duzue, ezkontuta, bost seme-alabekin eta pozik eta konforme nire bizitzaz eta bizimoduarekin.

-Beti saldu al duzu Donostian?
-Bai beti.

-Eta zergatik hernaniarra izanik, ez duzu Hernanin saldu eta saltzen?

-Orduan Hernanin ez zegoelako plazarik eta gaur zaharregia naitzelako horrelako aldaketak egingen hasteko.

-Zenbat ordu egoten zara egunean saltzen?


-4 ordu eta erdi, goizez bakarrik.

-Zuk bakarrik saltzen al duzu edo laguntzailerena bat duzu?

-Bakarrik, postuan ni bakarrik oso ondo moldatzen naiz; gainera, ez dago bi pertsonentzako lanik.

-Gaur egun zer motatako barazkiak saltzen dituzu gehiago?

-Porruak, patatak... eta bestelakoetan baserriko arrautzak.



Karmen Irazusta hernaniarra, Donostiako San Martin merkatuan, baserriko produktuak saltzen.

"Arzak eta Argiñanok berroak erosten zizkidaten eta Argiñanok irratitik propaganda ere egin zidan behin baino gehiagotan"

-Euroarekin ondo moldatzen al zara?

-Primeran. Hasieran, nahaste pixka bat izan nuen bai, baina orain pezetak ahaztu ere egin ditut.

-Prezioak: Zer iruditzen zaizkizu?

-Justu-justukoak, ez pentsa baserriko produktuak direla eta edozein prezio jartzen dugula, ez! bestela ez genuke ezer salduko.

-Jendeak erregateatzen al du?

-Bai batzuk bai, eta horiei gehiago kobratzen diet, aldiz isil-isilik eskatutakoa ordaintzen dutenei zerbait erregalo ematen diet.

-Euroarekin prezioak igo al dira?

-Bai asko, bai saltzen dugun eta bai erosten dugun guztia, dena igo da.

-Nola eramaten dituzu barazkiak postura?

-Nik ez ditut eramaten, lehen alabak eta orain errainak eramaten dizkit kotxez.

-Ezagunen bati saldu al dizkiozu inoiz zure barazkiak?

-Bai, noski, Arzaki, Argiñanori... Berroak erosten zizkidaten eta Argiñanok irratitik propaganda ere egin zidan behin baino gehiagotan.

-Pentsatuta al duzu San Martineko merkatu berria irekitzen dutenean hara joatea?

-Ez, ez didate uzten, adinaren-gatik.

-Norbaitek esan digu idazten eta irakurtzen ikasi nahi duzula. Orduan kalkuluak egiteko, buruz edo kalkulagailuz egingen dituzu?

-Buruz beti, eskolara ez naiz oraindik joan eta ezin bestean burua, eta oso ondo moldatu izan naiz beti.

-Jubilatuko al zara egunen batean Karmen?

-Bai, erremediorik gabea etortzen zaidanean.

-Bueno Karmen eskerririk asko eta segi horrela urte askotan.

-Bai bai, eskerririk asko zuei eta beste bat arte. ||

PATRICIA, MIREIA ETA JUANJO
Inmaculada ikastetxea

ZINE KRITIKA



Operako Mamua

Filme hau, drama erromantiko musikala da. Operako mamua papera Gerard Butlerrek egiten du eta aldi berean musikaren ainguerarena. Emmy Rossumek Christineren papera betetzen du. Protagonista eta operaren abeslaria da, honen maitalea Raul da eta Patriek Wilsonek antzezten du. Lehendik elkar ezagutzen zuten.

Pariseko operan bizi den gizon bat, operaren mamua bezala ezagutzen dena, Christine opera abeslariarekin maitemintzen da. Baina berak Raul maitatu du. Mamua Christineren bihotza bereganatzen saiatzen da, bere sekretuak erakutsiz. Azkenean, Christinek bietako batekin gertzea erabaki behar du.

Istorio polita eta interesgarria da. Momentu hunkigarri eta misteriotsuak ere baditu bukaera arte ez dakigulako zeintzuk diren pertsonaia batzuk. Dekoratu ikusgarriak ditu eta musika entzungarria eta zoragarria da. Pelikularen zenbait zati oso motelak direnez gero, pixka bat aspergarria ere gerta dakiguke. Filme hau gaztetxoek ulertzea zaila izango dela uste dugu "flash-back" efektuak baititu.

Pelikula hau helduei eta hamalau urte baino gehiago duten gazteei gomendatzen diegu. Agian txikiagoentzat zaila izango bailitzateke filme guztia ulertzea. Eta gogaikarria ere irudituko litzaieke. Filme honen zuzendaria Joel Schumacher da. Bere karreraren filmerik garrantzitsuenak "Batman forever", 1995 eta "Batman eta Robin", 1997. urtean sortutakoak dira. Hauek ezagutza eta ospe handia eman zioten. Bere azken filmea "Operako Mamua" da eta honekin ere arrakasta handia izan du. ||

EIDER, EVA, SANDRA ETA ISA
Inmaculada ikastetxea

ikasleen txokoa

Urdaibai, erreserba naturala



Urdaibaiko erreserba naturala, goitik begiratuta.

BIZKAIKO Golkoko urmahel batean kokaturik, URDAIBAiko natur-erreserba Euskal Autonomia Erkidegokoa den Bizkaiko lurraldeko Busturialdea eskualdean dago. UNESCO-k "biosfera erreserba" izendatu zuen 1984. urtean.

URDAIBAIk 220 km²-ko azalera du eta 45.000 biztanle bizi dira bertan. Barruan 22 udalerrri ditu, eta horietako hamaika oso-osorik daude erreserban. Mugei dagokienez, iparraldean kostaldea du, eta estuarioko sarrera Matxitxako eta Ogoño lurmuturrek eta Izaro uharteak zaintzen dute. Gainerako muga geografikoak Oka ibaiaren arroen banalerroak definitzen ditu, eta hamabi kilometroko zabalerako eta hogeiko luzerako lurraldea

inguratzen duten altitude ezberdinek markatuta daude.

Izan ere, Oka ibaiaren inguruan zabaltzen den ingurune zoragarri honek sekulako interes naturala gordetzen du, bai paisaiaren aldetik eta bai fauna eta floraren aldetik ere. Biotopo ugari dago Urdaibain eta horri esker, fauna anitza: hegaztiak, ugaztunak, anfibioak, narrastiak, intsektuak, arrainak, moluskuak eta krustazeoak. Paisai desberdinak daude. Landaretza ere oso ugaria da. Ehiza babestua dago.

Gune honetan, klima ozeaniko epel eta hezea dago, eta bere ezaugarriak oszilazio termiko arinak, urte osoan eurikopurua berdintsua izatea eta izotzaldien falta dira.

Penintsulako eremu hezerik

garrantzitsuenetakoa den honetan, hainbat habitat eta baldintza ekologiko ezberdin bizi dira elkarrekin, eta bertako itsas-padura eta basoak animalia ugarentzat (batez ere hegaztiak) bizileku edota atsedeneku paregabea suertatzen dira. Natur-interes ukaezin horri itzelezko paisiaiz gozatzeko zortea gehitzen badiogu, batez ere bisitatuko dugun Oka itsasadarrean bertan, esan genezake ibilbide hau gure herrian zein ingurukoetan burutu daitekeen ederrenen artean dagoela. Oso leku gutxitan ikusi ahal izango duzue itsasoaren gorabeherek hemen sortzen dituzten bezalako paraje aldakorrak. Gainera, horretaz guztiaz gain, Bizkaiko kobazulorik garrantzitsuenetakoa diren Santimamiñekoak bisitatzeko aukera izango dugu, eta baita ondoko Oma haran idilikoa ere, bere oihan margotuarekin.

Gaur egun egiten ari diren ikerketa eta bestelako ekintzak, Euskal Herrian azaltzen diren garapen jasangarriarekin lotutako arazoan ulermen eta konponbideei zuzendurik daude, batez ere Urdaibaiko Biosfera-Erreserbari dagokionez (UBE), ezen eremu hori saioak egiteko eta erakusteko lekutzat erabiltzeko asmoa baitago. ||

ADIL, SERGIO, RAQUEL
Inmaculada ikastetxea

BITXIKERIAK



Portu auzoa, XVIII urtean.

Portu auzoa XVIII mendean

Urumea ibaiak 53 km-ko ibilbidea egiten du (Leitza-Donostia). Ibaian egiten zen merkataritzak asko bultzatu zuen Hernaniko herriaren ekonomia.

Hasieran, portua Osinagan kokatuta zegoen, geroago Portu auzoa dagoen lurretan kokatu zuten. Biak itsasotik hurbil eta burdinoletatik gertu. Portuen ardurua udalbatzarrarena zen eta urtero ateratzen zuten enkantera. Biak erabiltzen ziren, Osinagakoa Leitzarango merkatariek eta Portukoa hernaniarrek.

Itsasontziak, batez ere gabarrak eta ontzi txikiak ziren. Itsasgoraz baliatuz ibaian gora igotzen ziren burdinolak lehengaiak hornitzeko (burdin mea eta zura).

XVIII. mendean Urumean gora igotzea zailtzen joan zen. Hala ere Aita Larramendik Espainiako erregeari (Fernando VI.a) 1775ean Aingura-Fabrika Hernanin ezartzeko eskatu zion, honek onartu egin zuen eta Pikoaga, Fagollaga, Errotaran, Ereñotzu eta beste burdinola batuz aingurak egiten hasi ziren. Lau urtetan hogeita mila kintal aingura egin behar zituzten eta zaila izan arren, lortu egin zuten. Gainera, burdina eta aingurak egiteko teknika hobetu zuten eta atzerritarrak etortzen hasi ziren gure teknika ikasteko asmoz.

XIX. mendean Hernaniko portua erabiltzen zen oraindik, Lonjan pilatutako burdina, zura, arraunak eta bestelakoak Donostiara eramateko.

1833an errepide berriak egiten hasi ziren eta Urumearen gainbehera suposatu zuen; portuaren tokian auzoa jaio zen "Portu" gure herriko historiaren pasadizo bat gordetzen duena eta izenean bertan gogorarazten diguna. ||

EIDER, EVA, SANDRA ETA ISA
Inmaculada ikastetxea

Orri honen egileak



Adil Astot, Sergio Jara, Raquel Vitoria, Patricia Fernandez, Sandra de la Cruz, Eva Barrasa, Juanjo Fernandez, Mireia Honrado, Eider Manjón, Isa Bedim.



Portu auzoan beti izan da lonja.